

# queerretik\_kuirrera ibilbide bat

Eraldaketa  
teoriak zorrozten  
Erreenteria, 2025eko uztailak 11  
Danele Sarriugarte Mochales

\_queer

---

## zer da, baina?

«*Queer* hitzaren jatorrizko esanahia “arraroa” da, eta ingelesez gay eta lesbianak irantzeko termino bat zen. Hala ere, 1990eko hamarkadan AEBn sexualki normatiboa ez den guztia izendatzeko hartu zuten termino hori eta esanahi berriz hornitu, modu horretan, lehendik zuen konnotazio negatiboa positibo bihurtuz eta hitz horretaz berjabetuz. Hemendik sortu zen queer teoria, kultura edo mugimendua deritzona, heteronormatititatea salatzeko espazio politiko bat, identitate transgresoreen aldeko ekimena.


Queer teoria erabiliz, Teresa De Lauretis-ek 1991n generoari buruzko teoria bat proposatu zuen. Teoria horren arabera, identitate sexuala, genero-identitatea eta joera sexuala eraikuntza sozialak dira; beraz, generoa nahiz sexua historikoak eta aldagarriak dira, eraikitakoak, asmatutakoak.»

(Amaia Alvarez Uria, *Genero-ariketak*, 2013)

militantzia

---

1969\_stonewalleko  
matxinada



## 1989\_eremu arrosa

«New Yorkera gonbidatzen zaituztela, den-dena ordainduta, Stonewall ospakizunean parte har dezazun, hogei urte igaro direnean neskato gayek Village auzoko taberna bat hartu eta poliziak egurtu zituen hartatik, 1969an. Ipuina kontatzen dizutela eta behartua sentitzen zarela aitaren egitera hori guztia gertatu zen tokian. [...] Christopher Street-eko metro-geltokian jaisten zarenean tupustean egiten duzu topo gihar eta gorputz-kulturista tona batekin, praka labur-laburrak soinean dituztela, kaskamotz eta belarritakotxoekin; gizon-bikoteak, eskutik helduta, patinetan pasatzen dira zure albotik, ikusi ere egingo ez bazintzute bezala. Eta nola ikusiko zaituzte bada, hain itsusia bazara eta munduan zehar zurekin badaramazu histerika hirugarren-mundukoaren desnutrizioa. Nola egingo dizute kasu txiletar aurpegi hauxe badaramazu, zur eta lur, homosexual potente eta ondo elikatuen Olinpo honen aurrean, nazkaz begiratzen dizute-eta, esanez bezala: gay harrotasunaren katedralera ekartzeko mesedea egin dizugu, indiotxo. [...] Manhattaneko esparru hauxe, New Yorkeko eremu arrosa, non edozein gauza erosteagatik begi biak kentzen ditzikuten; hauxe bera, hirira datozen homosexual dolardunen erosketa-tourraren erdigunea da. Are gehiago mundu mailako festa honetan, Manhattan irla galaz janzten denean ortzadar gayaren koloreekin. Egijatan kolore bakarra bada ere: zuria. Agian gaya zuria delako. [...]»

Horrexegatik ez nintzen luzaroegi gelditu tabernatxo historikoan, begiratu azkar bat egin eta ohartzen zara lekuz kanpo zaudela, ez zarela gihadun estetika klasiko horren urrezko postalaren parte, New York hiriak badituela beste xoko-moko batzuk arrotz ez sentitzeko, beste taberna kutsatuago batzuk arima latinoak bere lurrarde kantua saltsaren erritmoan dantzatzeko».

Pedro Lemebel (2000)

---

tartean...

«Ulertu nahi izanez gero “queer teoria” izena eman zaion horren sorrera, ezinbestekoa da kontzeptu teorikoaren erro soziopolitikoak ezagutzea. Queer mugimenduak 80ko hamarkadan Estatu Batuetako eta Europako zenbait herrialdetako borroka politiko eta sozialen harira sortu ziren. Urte haietakoak dira politika feministen eta gay eta lesbiana taldeen norabidea zeharo aldatu zuten hainbat krisaldi; hots, **hiesaren krisia, feminismo heterozentratu, zuri eta kolonialaren krisia eta gay kultura sortu berria sistema kapitalistak berera ekarri izanak eragindako krisaldi kulturala».**

Javier Saéz (*Genero-ariketak*, 2013)

# 1990, Queer nation / Queers read this!

«Queer! Ah, do we really have to use that word? It's trouble. Every gay person has his or her own take on it. **For some it means strange and eccentric and kind of mysterious. That's okay, we like that. But some gay girls and boys don't. They think they're more normal than strange.** And for others “queer” conjures up those awful memories of adolescent suffering. Queer. It's forcibly bittersweet and quaint at best-weakening and painful at worst. Couldn't we just use “gay” instead? It's a much brighter word and isn't it synonymous with “happy”? When will you militants grow up and get over the novelty of being different?»

«Well, yes, “gay” is great. It has its place. But **when a lot of lesbians and gay men wake up in the morning we feel angry and disgusted, not gay.** So we've chosen to call ourselves queer. **Using “queer”** is a way of reminding us how we are perceived by the rest of the world. **It's a way of telling ourselves we don't have to be witty and charming people who keep our lives discreet and marginalized in the straight world. We use queer as gay men loving lesbians and lesbians loving being queer.**

**Queer, unlike GAY, doesn't mean MALE.»**

«And when spoken to other gays and lesbians it's a way of suggesting we close ranks, and forget (temporarily) our individual differences because we face a more insidious common enemy. Yeah, QUEER can be a rough word but it is also a sly and ironic weapon we can steal from the homophobe's hands and use against him.»

**COCK SUCKING**  
**FAG GOTT**  
**QUEER NATION**

## 1ST ANNUAL DYKE PRIDE MARCH

LESBIANS *lust*  
for POWER

### Why:

To celebrate dyke desire  
and kick off Pride  
Weekend

### When:

12:00 PM Saturday,  
June 26, 1993

### Where:

Meet at Bryant Park –  
42nd St. & 6th Ave. –  
end up at the Union Sq. rally



What does it mean to lust? What does it mean to desire? How many times has your desire been too painful or too dangerous to express? Have you ever been punished for wanting the wrong thing?...the wrong lover? The Lesbian Avengers believe that DESIRE is a POWERFUL WORLD-ROCKING FORCE. DESIRE moves us to reach out and to demand respect and civil rights for lesbians. A BURNING DESIRE for women moves us to explore and express our lust and love even in the face of danger.



A FIERCE DESIRE for justice takes us into  
the streets every time  
Dykes are threatened.

The LESBIAN AVENGERS is a direct-action group focused on issues vital to lesbian survival and visibility. We meet every Tuesday at 8PM at the Lesbian & Gay Community Services Center, 208 W 13 Street, New York.

For information: (212) 967-7711 ext. 3204

## 1992, Lesbian Avengers

- «The Lesbian Avengers were born in 1992 during an earlier wave of hardcore woman-hating, and anti-gay, white Nationalist hate».
- Sortzaileak: Ana Maria Simo, Anne Maguire, Anne-Christine D'Adesky, Marie Honan, Maxine Wolfe eta Sarah Schulman.







akademia/teoria



---


## aurrekariak\_sexua eta generoa (1949)

«**Emakume ez da jaiotzen: egin egiten da. Ezein destino biologikok, psikikok, ekonomikok ez du definitzen gizaki emeak gizartearen duen irudia; zibilizazio osoak sortzen du gizonaren eta zikiratuaren tarteko emaitza hori, femeninotzat jotzen den hori.** [...] Interpretazio-sistema oker horren oinarria zera da, ontzat jotzea naturala dela gizaki emearentzat emakume femenino bihurtzea: ideal hori mamitzeko, ez da nahikoa heterosexuala izatea, ezta ama izatea bera ere; "egiazko emakumea" produktu artifizial bat da, zibilizazioak ekoitzia, garai batean castratoak ekoizten zituen bezalaxe; ustez pinpirinkeriarako, otzantasunerako duen "sena" ikasarazi egiten zaio, gizonari harrotasun falikoa bezalaxe; gizonak ez du beti onartzen bere gizon-bokazioa; emakumeak arrazoi sendoak ditu are otzantasun gutxiagoz onartzeko esleitu zaion bokazioa».

---

## aurrekariak\_heteroaraua (1978)

«[...] Bitartean, kontzeptu heterozuzenak higatuz doaz. Zer da emakumea? Erne denak: defentsa aktibora. Egia esan, lesbianek ez dute halako arazorik, ikuspegi-aldaleta bat dela medio, eta **ez litzateke zuzena esatea lesbianak emakumeei lotzen zaizkiela, emakumeekin egiten dutela amodia, emakumeekin bizi direla, zeren “emakume” hitzak ez baitu esanahirik pentsamendu-sistema heterosexualetan eta ekonomia-sistema heterosexualetan baizik. Lesbianak ez dira emakumeak».**





---

## aurrekariak sexualitatearen historia (1976-84)



«[...] sexua ez da bere burua erreprimitzen duen errealtatea, ezpada teknologia zein ezagutza konplexuen emaitza eta diskurso-eragile batzuen bidez (komunikabideak, psikologia, psikoanalisia, kristau-aitortza, medikuntza, pedagogia, etab.) norbanakoengandik atera daitekeen jakingaia. Sexuaz hitz egin beharra dago, azaldu egin behar da, kontatu, aitortu, bistan jarri; “sexuaren egiari” leku egin behar zaio gizarte egituran. Aipatutako produkzio prozesu horrek, zati batean behintzat, zenbait subjektu mota finkatzea dakar, berezkoa luketen funts edo ekai horren arabera izendatuko liratekeenak; alegia, **eroak, perbertsoak, onanistak, histerikoak, homosexualak, eta enparauak**, giza zientzia berrien katalogoetan sartu dira XVIII. mendetik hona, Foucaultek “sexualitatearen dispositibo” izendatu zuenaren aitzakian». (Javier Sáez, *Genero-ariketak*, 2013)



---



1987,  
Borderlands\_La  
Frontera

«The U.S.-Mexican border *es una herida abierta* where the Third World grates against the first and bleeds. And before a scab forms it hemorrhages again, the lifeblood of two worlds merging to form a third country-a border culture. Borders are set up to define the places that are safe and unsafe, to distinguish us from them. A border is a dividing line, a narrow strip along a steep edge. **A borderland is a vague and undetermined place created by the emotional residue of an unnatural boundary.** It is in a constant state of transition. The prohibited and forbidden are its inhabitants. ***Los atravesados*** live here: the squint-eyed, the perverse, the queer, the troublesome, the mongrel, the mulato, the half-breed, the half dead; in short, those who cross over, pass over, or go through the confines of the “normal”.»

«Lesbiana beltz [of color] batek bere sorburuko kulturaren aurka egin dezakeen ekintza handiena sexu-jokabidean datza. Desafio egiten die bi debeku morali; alegia, sexualitateari eta homosexualitateari buruzkoei. **Lesbiana izaki, heziketa katolikoa jasotakoa, “hetero” izaten irakatsia, “queer” izatea erabaki nuen».**

---

1990, Genero  
nahasmendua




«Generoaren parodiaren ideia proposatzean ez dugu esan nahi genero original bat dagoela eta identitate parodikoek hori imitatzen dutela. Izan ere, *original bat egotearen ideia bera* parodiatzen da hemen; genero identifikazioaren ideia psikoanalitikoa fantasia baten fantasia den bezala, —dagoeneko «irudi» bat (zentzu bietan) den Beste baten transfigurazioa—, **generoaren parodiak erakusten du generoaren atzean omen dagoen identitate originala bera originalik gabeko imitazio bat dela.** Zehatzago esateko, imitazio plantak egiten dituen ekoizpen bat da. **Beraz, generoa kordokan dago beti, eta horrek fluidotasuna ematen die identitateei.** Horrek esan gura du identitateak irekita daudela esanahi berrietara eta testuinguru berrietara; gehiegitasun parodikoak ezinezko egiten die kultura hegemonikoari eta haien aldekoei genero identitate naturalizatu edo esentzialistak daudela esatea. [...] Beraz, pentsatu beharrean genero identitatea dela original batekiko identifikazioa eta kausa determinatzaile bat, pentsa genezake **genero identitatea dela jasotako esanahien historia pertsonal/kulturala eta imitazio jardun batzuen menpe dagoela**, zeintzuek erreferentzia egiten dieten haien ondoko beste imitazio batzuei; imitazio jardun horiek guztiekin batera jatorrizko eta barruko ni generodun alegiazko bat eraikitzen dute, edo eraikuntza horren mekanismoa parodiatzen dute».

«Horrenbestez, generoaren atributuak performatiboak badira, eta ez barruko esentzia baten agerbide, atributuok eraiki egiten dute identitatea, ez dute bideratzen edo azaleratzen. Funtsezkoa da agerbide izatearen eta performatibilitatearen arteko bereizketa. **Generoaren atributuak eta ekintzak**, —hau da, gorputz batek bere esanahi kulturala erakusteko edo ekoizteko darabiltzan askotariko bideak— **performatiboak badira, orduan ez dago aurretik existitzen den identitate bat, zeinarekin erka daitekeen ekintza edo atributu bat; ez lego ke genero ekintza egiazko edo gezurrezkorik, benetakorik edo desitxuraturik, eta bistan geratuko litzateke egiazko genero identitatea postulatzea fikzio erregulatzaile bat dela.** Generoaren errealityea antzezpen sozial etengabeen bidez sortua izateak esan gura du sexu esentzialaren eta egiazko maskulinotasun edo feminitasun iraunkorren nozioak eurak eraikiak direla, eta hori estrategia baten parte dela, zeinak generoaren izaera performatiboa ezkutatzen duen, eta ostentzen dituen, halaber, generoaren konfigurazioak menderakuntza maskulinistaren eta nahitaezko heterosexualitatearen esparru murritzaleetatik kanpo ugaritzeko aukera performatiboak».

**«Identitatea deseraikitzea ez da politika deseraikitza; kontrara: identitatea egituratzeko baldintzak eurak politikoak direla esatea da.** Hanelako kritika batek auzitan jartzen du feminismoak bere burua identitate politika gisa egituratzeko erabili duen marko fundazionalista. Fundazionalismo horren barne paradoxa da aurresuposatzen, finkatzen eta mugatzen dituela ordezkatu eta askatu gura lituzkeen «subjektuak». **Kontua ez da aukera berri bakoitza eta guzti-guztiak goraipatzea aukera izate hutsagatik, baizik eta modu berri batez deskribatzea dagoeneko existitzen diren baina kulturalki ulertzintzat edo ezinezkotzat jotzen diren kultur eremuetan existitzen diren aukerak.** Identitateek utziko baliote izateari silogismo politiko baten premisa finkoak, eta utziko balitzaoio pentsatzeari politika dela eginda datozen subjektu batzuen ustezko interesetatik eratorritako jardun multzo bat, politika egiteko modu berri bat sortuko litzateke, duda barik, zaharraren hondakinatik. Orduan sexuaren eta generoaren konfigurazio kulturalak ugaritu ahal izango lirateke, edo, **hobeto esanda, oraingo ugaritasunak tokia izango luke bizitza kultural ulergarria ezartzen duten diskurtsoetan, sexuaren bitasuna bera ere aztoratuz, eta bere funtsezko ez-naturaltasuna erakutsiz».**

## 1990, Epistemology of the closet

«*Epistemology of the Closet* proposes that many of the major nodes of thought and knowledge in twentieth-century Western culture as a whole are structured —indeed, fractured —by a chronic, now endemic crisis of homo/heterosexual definition, indicatively male, dating from the end of the nineteenth century. The book will argue that **an understanding of virtually any aspect of modern Western culture must be, not merely incomplete, but damaged in its central substance to the degree that it does not incorporate a critical analysis of modern homo/heterosexual definition;** and it will assume that **the appropriate place for that critical analysis to begin is from the relatively decentered perspective of modern gay and antihomophobic theory.**»



1998, Female  
masculinity





Figure 7. "Mike and Sky," by Catherine Opie (1993). Photo courtesy of Jay Gorney Modern Art, New York and Regen Projects.


«What is “masculinity”? This has been probably the most common question that I have faced over the past five years while writing on the topic of female masculinity. **If masculinity is not the social and cultural and indeed political expression of maleness, then what is it?** I do not claim to have any definitive answer to this question, but **I do have a few proposals about why masculinity must not and cannot and should not reduce down to the male body and its effects.** I also venture to assert that although we seem to have a difficult time defining masculinity, as a society we have little trouble in recognizing it, and indeed we spend massive amounts of time and money ratifying and supporting the versions of masculinity that we enjoy and trust; many of these "heroic masculinities" depend absolutely on the subordination of alternative masculinities. **I claim in this book that far from being an imitation of maleness, female masculinity actually affords us a glimpse of how masculinity is constructed as masculinity. In other words, female masculinities are framed as the rejected scraps of dominant masculinity in order that male masculinity may appear to be the real thing. But what we understand as heroic masculinity has been produced by and across both male and female bodies.»**

«This opening chapter does not simply offer a conventional theoretical introduction to the enterprise of conceptualizing masculinity without men; rather, it attempts to compile the myths and fantasies about masculinity that have ensured that masculinity and maleness are profoundly difficult to pry apart. I then offer, by way of a preliminary attempt to reimagine masculinity, **numerous examples of alternative masculinities in fiction, film, and lived experience. These examples are mostly queer and female**, and they show clearly how important it is to recognize alternative masculinities when and where they emerge. Throughout this introduction, I detail the many ways in which **female masculinity has been blatantly ignored both in the culture at large and within academic studies of masculinity**. This widespread indifference to female masculinity, I suggest, has clearly **ideological motivations and has sustained the complex social structures that wed masculinity to maleness and to power and domination**. I firmly believe that a sustained examination of female masculinity can make crucial interventions within gender studies, cultural studies, queer studies, and mainstream discussions of gender in general.»

## 2000, Sexing the body

«Haur bat jaiotzen da Europa mendebaldeko edo AEBko metropoli-ospitale handibatean. Haurra artatzen duen sendagilea konturatzten da haur jaioberriaren sexu-organoak ez direla ez maskulinoak ez femeninoak, edo maskulinoak eta femeninoak direla aldi berean, eta orduan, haur-endokrinologoarengana (haurren hormonen aditua) eta kirurgialariarengana jotzen du. Larrialdi-egoera medikoa ezartzen da. Gaur egun indarrean diren tratamendu-irizpideen arabera, ez dago denbora galtzerik, ez nor bere baitarekiko hausnartzan ez gurasoekin elkarrizketa ireki bat izaten. Ez dago denborarik gurasoek aholkua eska diezaieten jaioberri intersexualak izan dituzten beste guraso batzuei, edo hitz egin dezaten pertsona intersexual helduekin. **Hogeitalau ordu pasa baino lehen haurrak ospitalea utzi behar du «sexu bat bilakatuta, eta gurasoek ziur egon behar dute erabakia egokia izan dela.**



Zergatik hainbesteko presa epaia emateko? Nola jakin dezakegu jaioberriari sexu egokia izendatzeko gai izan garenetz hogeita lau orduko epe laburrean? Erabakia hartu ostean, nola gauzatzen da eta zer ondorio ditu haurraren etorkizunean?»



queer, optika edo  
metodologia gisa

---

# Sara Ahmed




---

## killjoy


«Al hablar de las feministas aguafiestas en diferentes partes del mundo aprendí que la gente conectaba mucho con esa figura. A pesar de que la experiencia de ser una aguafiestas puede hacerte sentir sola, y, sinceramente, triste, porque puede ser duro ser la causa de la infelicidad de aquellos a quienes amas, hay algo bastante electrizante en encontrarla y, por lo tanto, también en encontrar a otras personas que ven en ella una promesa o potencial. **Cuando has pasado por el proceso de convertirte en la causa de la infelicidad de otras personas, ya sea tu institución o tu familia, hay cosas que sabes y ves que de otra manera no sabrías ni verías. Y cuando conoces a otra persona que ha pasado por eso y puedes ver que lo está viendo, es un tipo de visión muy particular entre personas.** Así que, definitivamente, la aguafiestas tiene que ver para mí con una manera de hacer comunidad. Pero la aguafiestas no es solo lo que nos une. La aguafiestas también nos recuerda que la comunidad feminista no es cálida ni cariñosa: podemos convertirnos en aguafiestas entre nosotras. En el contexto británico, por ejemplo, tenemos un enorme problema de transfobia, y sacar a relucir el racismo nunca ha sido bien recibido, a pesar de todo. Por tanto, es importante pensar que, por electrizante que sea la conexión, no significa que estemos todas juntas en esto, y que **las divisiones que a veces señala la aguafiestas feminista vienen con ella y son parte del nosotras que se reconoce en la aguafiestas.** Es muy importante decirlo.»

---

## Jack Halberstam





JUDITH HALBERSTAM



---

# José Esteban Muñoz




kuir

---

## 2000-2020, Medeak eta transfeminismoa

<https://irutxulo.hitza.eus/2020/09/11/desegiteko-erabakia-ez-da-katarsibat-izan-pixkanaka-gorpuzten-joanden-zerbait-baizik/>



# JALGI HADI PLAZARA

ITXARO BORDA



---

2007, Jaldi hadi plazara

«Maiteminaren sareetan gatibu nintzen eta bihotzak zioen: jalgi hadi plazara, euskara, lesbiana, euskara, lesbiana, eusleskarabianakaralesbeusbieranaka».


---

## Paul B. Preciado

- 2000: Zehar aldizkaria 44
- 2004: Zehar aldizkaria 54
- 2008: Zehar aldizkaria 64
- 2008: Feminismo pornopunk jardunaldiak
- 2013: Bake-ituna jardunaldiak
- 2019: Feministaldia







## 2010, Desira desordenatuak

- <https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/66767/Desira%20desordenatuak.pdf?sequence=1&isAllowed=y>
- Amaia Alvarez Uria, Rikardo Arregi Diaz de Heredia, Ibai Atutxa, Mikel Ayerbe, Itxaro Borda, Ibon Egaña (koord.), Angel Erro, Joseba Gabilondo, Iñigo Lamarca, Gema Lasarte, Kattalin Miner, Josune Muñoz, Juanjo Olasagarrre, Paul B. Preciado, Iratxe Retolaza, Monique Wittig


## 2013, Genero-ariketak

- [https://armiarma.eus/edo/liburua-genero\\_ariketak16](https://armiarma.eus/edo/liburua-genero_ariketak16)
- Aimar Elosegi, Virginie Despentes, Itziar Ziga (x2), Ainhoa Güemes, Medeak, Lucas Platero, Paul Preciado (x2), Amaia Alvarez Uria, Mari Luz Esteba, Javier Saez, Judith Butler (x2).
- Koord.: Isa Castillo eta Iratxe Retolaza



**Genero-ariketak**

Feminismoaren subjektuak




---


## 2014, Diskurtsoak, eraikuntzak, gorputzak

- Bakarne Altonaga (koord.), Alaitz Aizpuru (koord.), Itoitz Rodrigo, Nerea Aresti, Mari Luz Esteban, Zaloa Basabe, Aintzane Rincón, Jone Miren Hernandez, Amaia Alvarez Uria, Monique Wittig, Denise Riley, Elizabeth Grosz, Anne Fausto-Sterling.

# txalapartaren apustua



- 2013
- Paul B. Preciado, Miriam Solá, O.R.G.I.A., Medeak, Itziar Ziga, Amaia Perez Orozco, Sara Lafuente, Sayak Valencia, Verónica Arauzo, Post Op, Lucas Platero, Lucrecia Masson, Helen Torres, Quimera Rosa, Klau Kinki, Lucia Egaña.



\_orain, hemen  
kuir, zertarako?

---

# iraina geuretze

...a sly and ironic weapon we can steal  
from the homophobe's hands and use  
against him...

# kuirra da bollera da asterisko da okerra

- Kuir eztanda
- Erreenteriako Kuirdinadora
- Gazte feministak
- KOSA (Ehgam)
- Lea-Artibai eta Mutrikuko desbiauk
- Ay Dragmela
- Altxa Lili
- Bollurria/Bollotopaketak
- Bekat'Uros
- Oriyoko Pakak
- Bilerabi
- Enor
- Bitxibitxi
- Pomada Banda
- Gernika-Luma

## **EKAINAK 28. SEXU ASKAPENAREN NAZIOARTEKO EGUNA**

ENOR gea. Batueraz, garatxoa. Gatzeleraz, verruga. Azaleko etendura: deserosua, zatarra, iraunkorra, orbañik utzi gabe kentzeko zaila dana. Gure existentziak halauak dia, deserosuak sistemantza, ixilarazteko zaiak, erabat borratu ezinak. Herri txiki eta turistifikau hontan bizi gea, ta naiz ta herriko kristal, horra eta ate askotan kolorinetako pegatina edo banderak ikusi, uaindik hamaitza idarkei jasan ber diteu.

Izan ere, faxismoa goraka dijua; erakundeetan, diskurso politikotan, komunikabideetan eta abar ikusi leikeu. Horrelako diskurtsuen normalizaziyuak, biolentzia zuzena dakin. Batzuk aipatzearen, aurreko urtian Argentinan bost emakume erre zituen lesbiana izate hutzzatikan, eta etxetiketan gertuo, Oriyoko mugimendu feministak eta Pakak talde transmarribibolloak azken asteetan salatu dituzten azken urteetako eraso guztiyak. Zumaiatik, gure elkartasun beroena.

Ezin deu transfeminismuaz hitzein, posizionamendu antiarrazista bat izan gabe. Enoretik, Hernanin azken egunetan eon dian idarkei arrazista onarretein dana salatu nahi deu. Honekin batera, zumaiarroi, ta batez zumaiar txuriyo, morofobia inguruko hausmarketa individual eta kolektiboa ere itia dagokigula uste deu. Jatorri jakin bateko pertsona batekin likiar bat izatiak, gure arrazakea justifikatzeko eta normalizatzeko aitzakiya izateari utzi ber dio.

Era berian, ezin da harrotasunaz hitzein justizia globalaz hitzein gabe, ez bait gea aske izango herri sarraskituak dauden bitartean. Sionismua ez da okupazio militar soil bat, baizik eta proiektu kolonial, arrazista, patriarkal eta kapitalista bat; konpliziak aurkitzen dituna European. Estatu espanyiarrian, Euskal Herriyan eta ixitasun instituzional bakoitzan. Horregatik, gaur, Zumaiko queerrok herri palestinarren alde ahoitsa altxatzen deu, argi eta garbi esatedeu: Gelditu Palestinako genozidioa! Israelgo Estatuarri boikota, desinbertsioa eta zigorrak! Gezoniziona harrotasunik ez.

Esan bezela, ultraeskuinan gorakada ez da muga nazionaletan geatzen. Gauzak horrela, inguruan somaten dan gurekiko gorrotua ez da kasualitatea, erreakzionaiua baizik. Eta guk eztetu ixkutua nahi, ezta kontsumoako dekorazio bihurtue, biolentzaten gaitun sistema honen kontra antolatu baizik. Trans, bollera, marika, ez-bitar, lodi, diska, migrante, arrazializatu, sexu langile izatia, edo, normatibitatekin bat ez etortziak indarkeria jasatia bait dakin. Gañea, bereizkieti hauek kobilatzen dianian biolentzia ordun eta bortitzaua da, pribilegio edota botere-harremakan ageriyan lagata. Zumaia guretzat biziagarría izateko antolatzia biharrezkozat jotzen deu, ez baitia gubix normalitatetik kanko dauen bizimoduak aurrea eraman ahal izateko herrikit kanko biziak jun ber izan duen zumaiarrak.

Gaur, Ekañan 28an kalea atea gea, memoria eta politika iteko, ez postal bateako estampa izateko. Aldarrikatzeko harrotasun eguna etzala eskaparate batian sortu, baizikan ta errebolta batian. Hain zuzene, trans, bollera, puta, I.H.E.S.dun disidente antolatuek bultzatu zuen polizian jazarpenai, itxialdia eta prekarietai zuzenian erantzunez. Amorru hori bizarrezkoa da gaur egun e, idarkeiak ez baitia desagertu. Faxismua eguneroko elkarriketetan, tokiko hedabidetan, instituziylan erabakitan, familian, eskoletan, lagun artian iragazten da. Hiltzen jarraitzen gaitue. Disidentio gure etxetiketan, lanetiketan, hondartzetiketan eta espazio publikotiketan kanporatzen jarraitzen gaitue. Kanporaketa hau



keinu txikitak goputzetan da: burlak iteizkiguenian, ikusezin bihurtzen gaituenean, marmarrak, begiradetan, bildurretan, LGTBIA+ kolektibuen erasotan, zentsura kulturalian, in dian aurrerapen gutxi hoiiei item zaizkien eguneroko erresistentzian eta abar. Trans infantziyak ukatzen jarraitzeue. Migrazio politika hiltzayiak biziak jarraitzeue. Gure gorputzek patologizatuak izaten jarraitzeue, gure bizitzak estigmatizatzen, oinarrizko eskubidiak ukatzen...

Argi ta garbi mespretxatzen gaituztenengan faxismoa dao, baina inorekin arazoik ez dutela esanez ahua bete, baina ozeki bere lagunai item ai dana indarkeria dala esatea inoiz ausartzen ez dianengan ere bizi da konplizitate hori. Eraso baten aurrian daon ixitasunian. Horreatikan ozen esan nahi deu: Ixitasuna ez da neutrala. Indarkeien aurrian ixilik daona, haisekin dao. Berri burua kokatzen ez duna erasotzaillan aldian posizionatuta dao, lekuz kanpo nahi gaitun arauaren aldian. Ez da nahikua asmo onak izatia. O gurekin zaude, o guri erasotzen uzten ai zea. Hurrengo erasua ez da kasulatua izango, danon konpliziatua izangoa.

Horren aurrian, gu irmo gaude. Ez deu marjinatzen gaitun sistema honetan sartu nahi. Ez deu bazterketan gainian eraikitako normaltasun baten parte izan nahi. Ez gaude hemen turismuan dekoratura edertzeko. Hemen gaude erresistitzen, komunitatia ehundu nahi deulako, elkar zaintzen deulako, duintasunez biziak aukeratuko deulako, nahiz ta horrek inguruan traba in.

ENOR ez da pride. Gure biziak eztao salgai. Amore ematen ez duen gorputz, ahots eta istoriylan sare bat gea. Ezabatuko eztana. Ez gatoz ezer leuntzea. Gure duintasuna ez da negoziatzen. Ez gea eztabaidea bat, sareetako edukia edo moda bat. Aske eta bildurrik gabe biziak merezi duen pertsonak gea. Eta ez gea desagertuko. Gogaitzen zaituena baldin bagea, jakin eztetula barkamenik ez baimenik eskatuko existitziarren.

Amesten eta eraikitzen doan horire bagea. Hala, transfeminismotikan, biziak merezi dun biziak defendatzen deu, arautukan eta bildurretan haratao. Munduan eoteko beste modu batzuk irudikatzeiteu: xamurtasunea eta komunitatian. Ez gea bakarrik gorrotuau aurka borrokatzen ai, maitasuna, zaintza eta konplizitatiare lantzeiteu erresistentzia-tresna gisa. Memoria gea, bai, baina etorkizunare bai. Izane, topo item deun bakoitzian, espazio publikua elkarrekin okupatzen deun bakoitzian, miñ ematen duna eta nahi deuna izendatzetan deun bakoitzin, biziak berri bateko lekuak item ari gea. Ta ez gaue bakarrik. Elkarrekin gaue. Sarian gaude. Eta hazten ari gea.

## **GORA BORROKA TRASNFEMISNITA.**



**Bueltan gauz!**

**Adin guztietako transmaribibollo kolektiboko pertsonak osatzen dabentzaldie gara.**  
**LGTBIQA+ kolektiboko disidentiok eskualdien espazioak aldarrikatzeko eta elkarregaz hausnartzeko dekogun biherizen batetik sortu zan taldie.**  
**Komunitate anitz, seguru eta horizontal bat gure dogu eta guzti hau ikuspegi transfeminista baten baitan baino ez da posible, subjektu binarioetatik haratago.**

**Logika kapitalistatik at kokatzen gara, guztiz gaitsezten dogu gure mugimendue edukiz husten saiatzen diren enpresa eta erakundien propaganda interesatue. Autonomoak gara, ez dogu gure jardune beste eragile politiko edota antolakunde baten baitan ulertzen.**


**Zorroztu lumak borrokarako!**

# erronka\_ aliantzak

---

...we face a more insidious common enemy...

baina



---

alerta\_turistifikazioa



# HARROTASUN KRITIKOA

## MANIFESTAZIOA

Ekainaren 28an,  
12:30etan Bulebarretik  
Ondoren, bertsopoteoa eta festa Aurreskun

ASKATASUNA  
EZ DA  
KONTSUMITZEN,  
BORROKATU  
EGITEN DA

Donostiako Koordinadora Transmarikabollo Feminista  
Gogoratu maskara erabiltea eta segurtasun tartea mantentzea



eta euskara?



**«Pentsamendu feministaz edo dekolonialaz ari garenean, corpusaren gehiengoa ingelesez dago, eta apur bat frantsesez, gaztelaniaz eta portugesez; eta niri horrek asko kezkatzen nau, ze gu beste hizkuntza batzuetan ari gara, eta jendeak, emakumeek, beren hizkuntzetan kontatzen dutenak maiz ez du batere zerikusirik subjektu hegemonikoarentzat itzultzen diren lanekin. [...] Eta teoriarekin beste horrenbeste gertatzen da. Beraz, Sementaeren bidez, feminismo polifoniko bat ezagut dezakegu, eta feminismoaren kanona ez dezatela soilik hizkuntza hegemonikoetan diharduten feministek osa. Hizkuntzaren aldagaia txertatu ezean, munduko emakumeen gehiengoa kanpoan uzten dugu, eta hesi bat sortzen dugu: hizkuntza hegemonikoa ezagutzen baduzu, sar zaitezke, eta, bestela, zuri gertatzen zaizuna ez zaio inori interesatzen, bitartekariren bat agertu ezean.»**

María Reimóndez (2025)

# Mari Luz Esteban

- «nago / euskalduntasunaren teoria maketo baten / premian bagarela / teoria maketa / kanporako eta barrurako kolonialismoaren aztarnak / agerian uzteko / teoria maketa / iragana, orainaldia eta etorkizuna / batera jotzeko / teoria maketa / gure artean diren desberdintasunak eta desberdinkeriak / ez ahazteko / teoria maketa / euskal jakintzaren iruditeriak, kanonak / ezegonkortzeko / teoria maketa / ahoskera, doinu, azentu (omen) desegokiei / harrera ona egiteko / teoria maketa / euskaldun perfekturik ez dela ez inoiz ez inon izango / berresteko / teoria maketa / bizi garen lurrauen maizterrak baino ez garela / adierazteko / teoria maketa / gizaki zaurgarri eta elkarren menpeko gisara, ezezagunarekin elkartzera, ezezaguna (ere) defendatzen jarraitza / kondenaturik gaudela ohartzeko / teoria maketa / gure kanpo eta barne mugen seinalatzen dituzten / lotsak zauriak grinak desirak hautematen asmatzeko / teoria maketa / etorri ginelako gara / etorriko direlako izango gara»

# Ibai Atutxa

- Inzibilizatua
- «euskal sorgin zein langile zein terrorista basati gisa izendatutako edonoren torturagarritasunari esker eraiki da euskal nazio zibilizatua, eta euskal nazio zibilizatua da esklabozalea, jardun estraktibo, deslokalizatzale eta kanporatzaile arrazisten sustatzailea, langileen desjabetzetik bizi dena, emakumeen etxekoandretzea eta prekarizazioa ezinbesteko duena; den-dena desira heteroerreproduktiboaren eta homonazionalismo kapitalistaren baldintzapean».

## bibliografia+

- Ahmed, Sara. *Queer phenomenology. Orientations, object, others*. Duke University Press, 2006. [Fenomenología queer].
  - *The promise of happiness*. Duke University Press, 2010. [La promesa de la felicidad].
- Anzaldúa, Gloria. *Borderlands/La Frontera: The New Mestiza*. Aunt Lutte Books, 1987. [Borderlands/La Frontera: La nueva mestiza – Terres frontalières/La Frontera].
- Atutxa, Ibai. *Barrooak eta zibilizatuak. Euskal gatazken eskuliburu materialista*. Txalaparta, 2022.
- Borda, Itxaro. *Jalgi hadi plazara*. Susa, 2007. <https://susaliteratura.eus/liburuak/narr74>
- Butler, Judith. *Genero-nahasmendua*. Eskafandra, 2018.
- Casas, Christo. *Maricas malas. Construir un futuro colectivo desde la disidencia*. Paidós, 2023.
- De Beauvoir, Simone. *Bigarren Sexua*. Eskafandra, 2019.

- Esteban, Mari Luz. *Andrezaharraren manifestua*. Pamiela, 2019.
- *Haragizko erreformak*. Pamiela, 2023.
- Fausto-Sterling, Anne. *Sexing the body*. Basic books, 2000. [Cuerpos sexuados / Corps en tous genres]
- Foucault, Michel. *Histoire de la sexualité*, 1-2-3. Gallimard. [Historia de la sexualidad].
- Hainbat egile. *Desira desordenatuak*. Utriusque Vasconiae, 2010.  
<https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/66767/Desira%20desordenatuak.pdf?sequence=1&isAllowed=y>
- Hainbat egile. *Diskursoak, eraikuntzak, gorputzak. Gorputzen eta binarismo sexualaren eraikuntzaz*. UEU, 2014.  
<https://www.ueu.eus/argitaletxea/liburuak/diskursoak-eraikuntzak-gorputzak>
- Hainbat egile. Genero-ariketak. Edo!, 2013  
[https://armiarma.eus/edo/liburua-genero\\_ariketak16](https://armiarma.eus/edo/liburua-genero_ariketak16)
- Hainbat egile. *Transfeminismos: epistemes, fricciones y flujos*. Txalaparta, 2013.
- Halberstam, Jack. *Female masculinity*. Duke University Press, 1998. [Masculinidad femenina].  
— *In queer time and place*. New York University Press, 2005.
- *The queer art of failure*. Duke University Press, 2011. [El arte queer del fracaso].
- Kosofsky Sedgwick. *Epistemology of the closet*. University of California Press, 1990. [Epistemología del armario / Epistemologie du placard].
- Lemebel, Pedro. *New Yorkeko kronikak*.  
<https://elearazi.eizie.eus/2014/06/30/stonewallen-kolorea/>
- Lesbian Avengers <https://www.lesbianavengers.com/>
- Mora, Víctor. *Quién teme a lo queer*. Continta me tienes, 2021.
- Muñoz, José Esteban. *Disidentifications*. University of Minnesota Press, 1999.  
— *Cruising Utopia*. New York University Press, 2009. [Utopía queer / Cruiser l'utopie]

- Preciado, Paul B. *Manifiesto contrasexual*. Anagrama, 2020. [Manifeste contre-sexuel]
  - *Testo yonqui*. Anagrama, 2020. [Testo-junkie]
- Queer Nation. Queers Read This!  
<https://www.digitaltransgenderarchive.net/files/df65v8092>
- Sarriugarte, Danele. «Feminismoaren kanona ez dezatela soilik hizkuntza hegemonikoetan diharduten feministek osa» (María Reimóndezi elkarriketa). <https://jakin.eus/elkarrizketak/maria-reimondez-feminismoaren-kanona-ez-dezatela-soilik-hizkuntza-hegemonikoetan-diharduten-feministek-osa/> (Jakin, 2025eko apirila).
- “La aguafiestas nos une y nos recuerda que la comunidad feminista no es cálida ni cariñosa” (Sara Ahmed elkarriketa)  
<https://www.pikaramagazine.com/2024/10/la-aguafiestas-nos-une-y-nos-recuerda-que-la-comunidad-feminista-no-es-calida-ni-carinosa/> (Pikara, 2024ko urria)
- Schulman, Sarah. *The gentrification of the mind*. University of California Press, 2013. [La Gentrification des esprits].
- Torres, Diana J. *Pornoterrorismo*. Txalaparta, 2010. [Pornoterrorisme]
- Wittig, Monique. *Pentsamendu heterozuzena*. Lisipe, Susa, 2017. <https://susaliteratura.eus/liburuak/lisi03>
- Ziga, Itziar. *Sexual Herria*. Txalaparta, 2011.